



**JUSTO GARATE**  
**(1900-1994)**

Egilea:

**JERARDO ELORTZA**

## LEHEN URTEAK

Justo Garate Arriola 1900eko abuztu edo dagonilaren 5ean jaio zen Bergaran, Barrenkaleko 27. zenbakian. Zazpi neba-arreben artean zaharrena izan zen. Gurasoak Elgoibar eta Deba aldekoak zeuzkan. Aita, Benito Garate, baserritarra genuen jatorriz, baina gaztetan hogeit bat urtean jardun zuen lanean Ameriketara eta, dirutu ondoren, Euskal Herrira itzuli eta Benita Arriolarekin ezkondu zen. Justo jaio eta hilabete batzuetara familia osoa Ameriketara abiatu zen: Argentinako Tandil hirira, eta hantxe igaro zituen gure mutikoak haurtzaroko lehen urteak.

Bost urte beranduago, ordea, Garatetarrak Bergarara bueltatu ziren. Herri honetan burutuko ditu Justok lehen ikasketak. Txiki-txikitatik irakurle amorratua izango da eta zientzia eta hizkuntzetarako zaletasuna ere agudo sortuko zaio. Asko maite ditu geografia nahiz atzerriko lurak eta kulturak. Artean gaztetxoa delarik, Mundu-Gerrako gorabeherak arreta handiz jarraituko ditu mapen bitartez.

Batxiler-titulua Bilbon eskuratu zuen 1917an. Zalantza batzuk gainditu eta gero, medikuntza-karrerari ekin zion, hartarako Valladolideko Unibertsitatea aukeratuz. Aldi berean atzerriko hizkuntzei ere arreta berezia eskaini zien: frantsesa Bergaran ikasten hasia zen jadanik dominikoen ikastetxean; Valladoliden, berriz, alemana landu



Justo Garate (1900-1994).

2



Benito Garate eta Benita Arriola, Justo Garateren gurasoak.



Benito Garate, Justo Garateren aita, 1915-1920 aldera.



Benita Arriola, Justo Garateren ama, 1915 inguruan.

zuen bere kabuz, baina ez edonola, bigarren ikasturtean ohorezko matrikula lortu baitzuen hizkuntza horri zegokion irakasgaiari.

Bartzelonako Unibertsitatara jo zuen 1919ko udazkenean, bere ikasketetarako han aukera hobeak edukiko zituela-eta. Kataluniako hiriburuan Telesforo Aranzadi irakasle bergarar ospetsuarekin harremanetan jarri zen eta Angel Apraiz gasteiztarra ere ezagutu zuen: batak Botanika eta Antropologia irakasten zuen eta Literatur Estetika besteak. Garai hartan ikaskide izan zuen Aingeru Irigarai nafarrak, *Larreko* idazlearen semeak, euskarazko aldizkariak irakurtzeko eta musika klasikorako grinak piztu zizkion.



Justo eta Kleto Garate (biluzik). Tandil, 1902.



Garate-Arriola familia osorik. Gurasoak jarrita: Benito Garate eta Benita Arriola. Seme-alabak zutik: ezkerrean Benito, Justo eta Elias; erdian Maritxu; eta eskuinean Kleto, Graziano eta Julian.

## BILBON ETA EUROPA ALDEAN

Bartzelonan ikasturte pare bat bukatu eta Bilbora etorriko zaigu 1921ean Garate gaztea, lehiaketa bidez Basurtoko ospitalean praktikak egiteko lanpostua erdietsi eta gero. Buru-belarri murgilduko da medikuntza-zereginetan: klinika-historiak moldatu, ebakuntzetan lagundu, anestesiak egin, bisitak burutu eta mediku-prestakuntzarako beste hainbat lanetan parte hartuz. Ia aste osoan ospitaletik irteteke.



Alfonso Romero adiskide mexikarrarekin Alemaniako Friburg-en 1925an.

Hala eta guztiz ere, karrerako azken urteetako gaiak ikasteko astia ateratzen zuen nonbaitetik. Bosgarren urteko azterketak, 1922ko ekainean matrikula libreaz, Santiagon egitea erabaki zuen, hartara Galizia, Leon, Asturias eta Santander ezagutzeko aitzakia polita zeukalako. Geografiarako zuen zaletasunari jarraituz, bizitza osoan eutsiko dio Garatek bazterrak ikusi eta bidaiak egiteko gogoari. Urtebete beranduago, 1923ko ekainaren 25ean, eskuratu zuen lizentziatura medikuntzan Madriliko Unibertsitatean. Hau ere azterketa libre baten bidez.



Justo Garate Alemanian bi ikaskiderekin. Kolonia, 1924-1925.

Harrigarria dirudien arren, Basurton praktikak egiten diharduen sasoi hau beste zenbait arlotan aritzeko ere aprobeztatuko du gure gazte bergararrak: Bilboko Euskal Ateneo Nazionalistan orduko hainbat buruzagi abertzalerekin tratua izango du, hala nola, Jesus Maria Leizaola, Jose Horn eta Koldo Eleizalde herrikidearekin; urte gutxi lehenago eratu zen Eusko Ikaskuntza Kultur Erakundeko kide ere egingo da; libre geratzen zaizkion txolarteak Euskal Herriko geografia liburuetan sakonago ikasteko erabiliko ditu; egunkarietan idazten hasten da eta Mañariko jaietan Itziar Arostegi durangarra ezagutzen du, bere emaztea ez ezik laguntzailerik onena ere izango dena.

Dena den, doktoretza-ikasketak egitera atzerrira joan nahi zuen. Enrike Areilza sendagile famatuak lagunduzion bere asmoa betetzen, haren bitartez Basurtoko ospitalearen beka eman baitzioten; Gipuzkoako Aldunditik ere beste diru-laguntza bat etorri zitzaion. Beraz, 1924ko otsailean Basurtoko ospitalea utzi eta Europarako bidea hartu zuen: Paris eta Strasburgetik zehar Alemaniako Friburg-era iritsi zen. Hiri eder honetan 1925eko otsailera arte ikasi ondoren, Durango eta Bergarara itzuli zen.



Justo Garate Parisen 1924an.

Ez da, ordea, denbora askoan jaioterrian geratuko. Sei bat hilabetean beste mediku-ikasketa batzuk sakontzen ditu Parisen irakasle ospetsuekin eta erietxe ezagunetan. Hiri honetan Jose Mari Uzelai pintore bizkaitarrarekin biziko da eta era askotako jendearekin harremanetan jarriko: adibidez, Primo de Rivera-ren diktaduratik ihes eginda zegoen



Justo Garate Llamazarez doktoareekin Pariseko Chochin ospitalean, 1925.

Migel Unamuno idazle bilbotarrarekin, edota gerora zinean nabarmenduko zen Luis Buñuel aragoiarrarekin eta Fujita margolari japoniarrarekin.

1925eko udazkenean Bergarara bueltatu bezain laster, Bilboko erakunde baten beste diru-laguntza bati esker minbiziaren inguruko ikerketak egitera bidaltzen dute Berlinera. Bederatzi hilabeteko

egonaldian ikergaiak bilduko ditu Alemaniako hiriburuan, eta gero, 1926ko uda-udazkenean, Heidelberg-en tesia idatziko. *Dos variantes de la reacción de Abberhalden* izenburuarekin defendatuko du Madrilen 1927ko urtarrilean, epaimahaiak lan bikaintzat hartzen duelarik.



Aldi baterako itzuliko da Heidelberg-  
era ikerlanak jarraitzera, eta  
udazkenean hilabete eta erdi pasatuko  
du Ingalaterran lehendik bere kasa  
ikasiaz duen ingelesa hobetzen.  
Azaroan, baina, Bergararatu egingo  
da, Bilbon lana egin eta ezkontzeko  
asmotan.



## **GERRA AURREKO URTE NAHASIAK**

Europako hainbat lurraldetan ikasi,  
ikertu eta ibili ondoren, Bilboko Urkijo  
kaleko 24an jarri zuen mediku-  
-kontsulta Garate doktore gazteak.  
Primo de Riveraren diktaduraren azken  
momentuak ziren. Aurreko urteak  
estranjerian bizitzea egokitu zitzaion,  
baina harrezkero hurbiletik segituko  
zuen Euskal Herria, Espainia eta  
Europako egoera politikoaren  
gorabehera gatazkatsuak.

7



Alemaniano adiskideekin tenisean. Heidelberg, 1927.

Ez zen Garate politikazale sutsu horietakoa, baina ezin uka arazo publikoetarako harrak zirikatzen zuenik. Euskal nazionalistekin aspalditxotik zituen harremanak; baita desadostasunak ere. Eusko Abertzale Ekintza (ANV), alderdi nazionalista akonfesionala 1930ean sortzen denean, Justok bere atxikimendua eskainiko dio talde politiko berriari. Are gehiago, hilabete batzuk beranduago II. Errepublikaren etorrerarekin, Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetara aurkeztuko da errepublikazaleen zerrendan. Egia esan, ez zuen arrakasta handirik lortu eta Azpeitiko mitinean larri erabili zuten abertzale kontserbadoreek. Orduko bertso hau da gertakari haren lekuko:

Garate jauna Bergarakua  
euskaldun jatorra berez,  
euskalduna bai ezkerrekua  
apaizak ekusi nai ez;  
eldu ziyoten zamarratikan  
lau puska egin bearrez,  
Santakruz zanen odol beretik  
nazi dira nere ustez,  
Aita Inaziyo sortu erriyan  
biyotz onekuak daudez<sup>1</sup>.

Orain artekoa irakurrita, norbaitek bestelakorik pentsatuko badu ere, Justo Garate ez genuen ezkerzale

porrokatu eta setatia, ezta hurrik eman ere. Erljiori dagokionez, elizkoia izan gabe, fededuna zen eta sineste-askatasunaren aldekoa. Eta garai zital haietan ez zen gutxi. Bere burua liberal, aurrerazale, errepublikano eta federalistatzat zeukala esan daiteke. Eta horien guztien gainerik euskaltzale bortitza zen, noski. Euskal Herriari buruzko edozein gaik erakartzen zuen. Aurrerago izango dugu Justoren «euskal jakinduria» frogatzeko aukera, baina gerra aurreko urte nahasi hauetan ere makina bat kultur lani ekin eta amaiera eman zion.

Edonola ere, ez zen bere iritzia isilpean gordetzekoa. Argi eta garbi azalduko zuen pentsatzen zuena, sarritan eztabaida luze eta zaratatsuetan parte hartuz. Bilboko mediku-kontsulta ipini eta berehala polemika sonatu pare bat eduki zuen orduko egunkarietan: bata Aita Laburu jesuita eta psikologoari egindako kritika batek piztu zuen, eta bestea –sudurreko trigeminoa ukituta gaitzak sendatzea agintzen zuelako– une hartan oso modan zegoen Asuero doktoareari egindakoak. Artikulu horien bitartez, Garateren fama asko gehitu zen denbora gutxian, nahiz eta lagun eta bezero batzuk galdu. Aurrerago ikusiko denez, hil arte eutsiko dio Garatek eztabaidarako grinari.

<sup>1</sup> Ik. ARANBARRI, Iñigo, *Gure Mendea. Ehun urte Euskal Kulturari*, Donostia, 1999, 76-77 or.

## EUSKAL KULTURAREN INGURUAN

Istiluz jositako garai hartan eta bere lanbideari zegozkion betebeharrei uko egiteke, harritzekoa da nondik ateratzen zuen mediku bergararrak kultura-gaietan arakatzeko eta artikuluak nahiz liburuak idazteko astia. Izan ere, ez baita ahaztu behar 1928ko urtearen amaierara orduko Itziar Arostegirekin ezkondu eta familia

osatu zuela eta lehenengo haurrak laster etorri zitzaizkiela. Gainera, 1933az geroztik Basurtoko ospitalean sendagile gisa jardun zuen eta Eusko Ikaskuntzaren Zuzendaritzako kide bihurtu zen. Hala ere, hainbesterainokoa zen bere jakin-mina, non ia ez baitzegoen arrotz gertatzen zitzaion arlorik: medikua zen aldetik zientzietan jantzia genuen, baina letra-sailean ere nabarmentzen hasia zitzaigun.

9



Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorra. Donostia, 1935. Ezkerretik eskuinera zutik: Aita Migel Altzo, Frantzisko Basterretxea, Jose Migel Barandiaran, Klaudio Armendariz, Aita Jose Antonio Donostia, Juan Allende Salazar, Angel Apraiz, Justo Garate, Manuel Irujo eta Pedro Garmendia. Eserita: Julio Urkijo, Telesforo Aranzadi, Julian Elortza, Michel Lereboure, Juan Zaragueta eta Seber Altube.

Jorratu zuen esparru bakarra izan ez arren, euskalari, euskal idazle eta euskararekin zerikusia duten lanena azpimarratuko dugu orain hemen. Atzerriko euskalarien artean Wilhelm von Humboldt-i eskainiko dio aparteko arreta, bere izkribuak komentatuz eta hainbat obra alemanetik gaztelaniara itzuliz, batzuk ordura arte argitara gabe zeudenak. Bilbon 1933an kaleratu zen *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia* izeneko liburua gerora jakintsu prusiarrari buruz idatziko duen hainbat lanen aitzindaria izango da.

Euskal idazleei dagokienean, gerra-urtean [1936/1937] plazaratutako liburu batek dauka, gure ustez, izugarrizko garrantzia: *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel* izenburua daramanak, alegia. Euskal literatura eta hizkuntzalaritzaren historian hainbeste pisu duten bi autore hauen bizitza eta obraren gaineko xehetasun ugari jakinarazten digu Garatek. Gerra-giro hartan ez zuen, noski, behar adinako oihartzunik erdietsi, baina geroagoko historiagileak behin eta berriz baliatu dira liburu honetaz, XVIII. mendearen amaierako eta XIX.aren hasierako euskal letren mundua aztertu gura izan dutenean.

Euskarak berak gazte-gaztetatik tiratzen zuen. Nahiz eta eskolan edo

unibertsitatean arbasoen hizkuntza sakontzeko paradarik ez zitzaion egokitu, etxetik zekiena hobetzen saiatu zen. Gorago aipatu da, hogeitabat urterekin Bartzelonan ikasten ari zela, Aingeru Irigarai adiskideak euskarazko irakurgaiak eskuratzen zizkiola: Baionan agertzen ziren *Eskualduna* astekaria eta *Gure Herria* aldizkaria, hain zuzen. Hartara Iparraldeko euskalkietara ohitu zen; 1921eko udan, berriz, Bergaran Aita Arrigarai kaputxinoaren gramatikatik bereganatu zituen euskararen oinarrizko egitura teorikoak.

Egia esan, ez zuen asko euskaraz idatzi Garatek: han-hemenka sakabanatutako artikuluak gehienbat; *Euzkadi* egunkarian eta *Eusko Ikaskuntzaren Deya* aldizkarian gerra aurretik; eta *Gernika* eta *Euzko Gogo* aldizkarietan gerra ostean. Baina euskararen inguruan, gaztelaniaz batik bat, moldatu zituen lanen zerrenda ia amaiezina da. Filologiaren eremuetan aritzen zen gustura, Toponimia, Etimologia eta Lexikografiaren sailetan batez ere.

Eusko Ikaskuntzaren *RIEV* aldizkari bikainean soilik berrogeita hamar lanetik gora publikatu zituzten urte gutxiren buruan. Hauetariko asko euskarari buruzkoak ziren; adibidez, euskal hiztegi gintzari egindako



11

Justo Garate eta Itziar  
Arostegi eztei-egunean.  
Deba, 1928-09-17.  
Itziarko elizan ezkondu  
ziren. Lutoz jantzitza  
daude, Justoren aita hil  
berria baitzen.

# 12

ekarpen ugariak, *Contribución al Diccionario Vasco* izenburupean. Garai beretsuan Resurrección M<sup>a</sup> Azkue euskaltzainburuak Juan Antonio Mogelen eskuizkribu baten edizioa presta zezala eskatu zion Garateri, hau da, *La historia y geografía de España ilustrada por el idioma vascuence* liburuarena. Euskaltzaindiaren *Euskera* izeneko aldizkari ofizialean kaleratzen ziharduen Justok J. A. Mogelen obra hau atalka, anaiarteko gerra zitalak –beste gauza asko legez– bere edizioa eten zuenean<sup>2</sup>.




Elias Amezagaren  
*El doctor Justo Gárate. Crítico de críticos* izeneko liburua. Bilbao, 1996.

<sup>2</sup> Ik. AMEZAGA, Elias, *El Doctor Justo Gárate. Crítico de críticos*, Bilbao, 1996, 41-48 or. Justo Garateri buruzko beste hainbat argibide ere eskaintzen digu Amezagaren liburuxka honek.

## GERRATEKO IBILERAK

Itxura txarra hartua zion aspalditxotik Garate doktoreak Errepublikaren bilakabideari: bere iritziz, Sanjurjoren matxinada-saioak 1932an, langileen altxamendu iraultzaileak 1934an, eta Frente Popularraren garaipenak 1936an etorkizun beltza iragartzen zuten. Euskal Herriko Autonomia Estatutuari ere ez zitzaion aurrerabiderik ikusten. Horregatik, adiskideen artean nahikoa ezkor azaltzen zen mediku bergararra. Eta, neurri handi batean, asmatu egin zuela aitortu beharra dago, 1936ko uztailen lehertu egin baitzen anaiarteko gerra odoltsua.

Leku segurutxoagoa zelakoan, emazteak eta seme-alabek Bilbotik Sopelara alde egin zuten irailean eta han jaio zitzaien Garate-Arostegitarrei



Humboldt-en lan baten itzulpena, Garatek burutua eta RIEV aldizkarian 1931n agertua.

laugarren haurra. Justok, baina, Basurton jarraitu zuen. Oso hunkituta geratu zen bere koinatu Florenzio Markiegiren anaia hil zutenean: Jose Markiegi Arrasateko abadea zen eta herri horretako beste bi apaizekin batera Oiartzungo kanposantuan fusilatu zuten frankistek 1936ko udazkenean. Gizon ona eta apala omen zen, politika-kontuetan nahastu gabea; baina idazle euskaltzalea genuen eta hori bekatu larria zen nonbait une haietan.

Militarren matxinada hastean, kargu politikoren bat eskaini zioten ANVko kideek, orduko gatazkan sakonago murgil zedin. Garatek, ordea, ez zuen onartu. Epel samar zebilen gauza horietarako eta zeregin aski zeukan bestela ere: 1936ko urrian eratu berria zen Eusko Jaurlaritzak Medikuntza Fakultatea gauzatu zuen Basurtoko ospitalean, eta Garate jaunak egitasmoaren sorreran ez ezik, irakasle moduan ere parte hartu zuen; bestalde, gerrako premia gogorak arintzeko, mediku militar gisa jardun behar izan zuen; eta, gainera, bezero partikularrik ere ez zitzaion falta. Beraz, frentek Bizkaian iraun zuen bitartean ez zen ia Bilbotik atera, egunean hamasei edo hamazazpi ordu lan eginez eta familia ikustera Sospelara astean behin bakarrik joanez.

Gernikako bonbardeoaren ondoren, maiatzean, emazteak eta umeek Frantzian barrena Belgikara jo zuten babes bila. Justo Bilbon gelditu zen ekainera arte, eta hiria militarren eskuetan erortzear zegoela, atzerrira abiatu zen Santanderren itsasontzia hartuz. Donibane-Garaziko aterpe-etxe batera zihoazen bostehun haur euskaldunen mediku izendatu zuten, eta horrela lortu zuen infernu hartatik ihes egitea. Dena den, azkenengo momentuan ere estuasun batzuk pasatu behar izan zituen, milizianoekin Kantabriako hiriburuan, eta barku frankistekin Santanderretik Bordelerako itsasketan.

Hurrei Bordeletik Donibane-Garaziraino lagundu eta gero, Nazioarteko Erakusketa ikusi zuen Parisen eta, azkenean, familiarekin elkartu zen Bruselan. Gustatzen zitzaion Belgika bizitzeko zein lanerako, eta hilabete haietan ondo ezagutu zuen. Bertan gelditzeko lan-eskaintzarik ez zitzaion falta. Alabaina, ziur zegoen Bigarren Mundu Gerra gainean zutela, eta ondorioz, Ameriketarantz begira jarri zen: Estatu Batuak, Mexiko, Argentina...; paperak eta bidaiak prestatzeari ekin zioten eta, asko hausnartu ostean, Argentinakoa iruditu zitzairen aukerarik bideragarriena, han aspaldidanik lagun eta senide ugari baitzuten.

## AMERIKETAKO BIGARREN ABERRIAN

Honenbestez, Garatetarrak Rotterdam-eko portuan ontziratuko dira 1937ko azaroaren 13an, zuzenean Montevideora joateko. Hilabete geroago Buenos Airesen dira eta Argentinako senideek harrera beroa egiten diete. Justoren lehenengo ardura bere lanbidea ziurtatzea izango da. Hartarako oso baliotsuak gertatuko zaizkio Europako irakasle eta

sendagile famatuek eman dizkioten gomendiozko gutunak. Inondiko unibertsitate, akademia eta enbaxadak bisitatuko ditu beharrezkoak diren paper eta agiriak eskuratzeko.

1938ko uztailaren 18an, Espainiako gerra hasi eta bi urtera hain zuzen, gaindituko du Argentinan medikuntzan aritzeko azterketa. Urte berean bigarren tesi bat ere aurkezten du: *Glucopenias endógenas* izenekoa. Eta lanari ekiteko, zein eta haurtzaroan



Garatetarrak gerraren ihesi Ameriketara iritsi zirenean, «Alcyone» itsasontzitik lurreratzean. Buenos Aires, 1937-12-10.





Justo eta Itziar Argentinako Tandil hirian, 1939an.



Argentinako lehen urteetako argazkia.  
Tandil, 1940-41.

15



Garate-Arostegi familia:  
Zutik: Mitxel, Amaia, Justo,  
Nere eta Jabier Garate.  
Eserita: Itziar Arostegi.  
Tandil, 1953.

# 16

ezagututako Tandil hiria hautatuko du. la hutsetik hasi beharra dago: etxea erosi, kontsulta eratu, bezeria sortu eta abar. Dena den, garai onak dira Argentinarako eta, Tandilen nahiz alboko herrietan gogor saiatuz, urte batzuen buruan egoera ekonomiko lasaia izatera iritsiko da.

Leku atsegina da Tandil. Hiri txiki, garbi, polit eta aurrerazalea, Justoren esanetan. Lagun asko ditu eta gustura bizi da bertan. Baina 1954an

Mendozako Unibertsitateetik eskaintza tentagarria dator: «klinika medikoa» deituriko katedra bere gain har dezala. Ordurako gizon heldua izan arren, hara doa gure bergararra bere azken berrogei urteetako bizilekua izango den hirira. Geroztik Argentinako Andetatik hurbil dagoen hiri hau bihurtuko da Garate doktore, irakasle eta idazlearen erreferentzia-gune.



Europara egindako txango batean Mendozako Unibertsitateko ikasleekin. Hauek karrera amaitu berriak ziren. Darmstadt (Alemania), 1964.

Mendozako Unibertsitateak, ordea, kanpora ateratzeko parada ere eskuratuko dio. Ameriketara heldu eta hogeita bat urte geroago Europaratuko da berriro. Beka bati esker, Suedia, Alemania, Suitza, Austria eta Italian zehar ibiliko da hainbat hilabetetan; baita Ipar Euskal Herrian ere. Bost urte beranduago, 1964an, hogeita bost mediku berriren gidari gisa lau hilabeteko ibilaldi luzea egingo du Europako zenbait lurralde bisitatuz. Txango honetan bere emazteak eta alaba nagusienak laguntzen diote. Oraingoan ere bi aldiz egongo dira Iparraldean, Donostia eta Bilboko adiskide askorekin elkartzen direlarik. Ez dute, haatik, Hego Euskal Herrira pasatu gura Francok agintean jarraitzen duen bitartean.

Alemania bietara –federalera nahiz demokratikora– joateko gonbita jaso eta onartuko du hurrengo urtean; 1967an, berriz, Mexikora abiatuko zaigu Colegio de las Vizcaínas ikastetxearen bigarren mendeurreneko ospakizunetara. Hiriburua ez ezik, beste hainbat paraje eta toki ikusgarri ere ezagutuko ditu Mexikon; etxerakoan Kolonbiako Bogotan, Peruko Liman eta Txileko Santiagon geldialdiak egingo ditu. Irteera hauen ondorioz bi monografia kaleratuko dira gerotxoago: *Ramón Munibe en la Viena de la Ilustración* (1969) eta *Los colegios de las Vizcaínas y Vergara en el siglo XVIII* (1972).

17



Ezkerretik eskuinera: Juan San Martín euskaltzaina, Jose Mujika mediku bergararra, Itziar Arostegi, Jose M<sup>ñ</sup> Satrustegi euskaltzaina eta Justo Garate. Donibane-Lohizune, 1964.

## JARIO AGORTEZINA

Aipatu berri ditugun lan biak ez ziren Ameriketara plazaratu zituen lehenengoak, ezta gutxiagorik ere. Hango bizimodura egokitu eta berehala berrekin zion Garatek kultur gaiari buruz idazteari eta argitaratzeari: 1942an *Viajeros extranjeros en Vasconia* liburua kaleratu zuen Buenos Airesko EKIN argitaletxearen bitartez; hurrengo urtean eta editorial berean *Cultura biológica y arte de traducir* izenburu bitxia daramana. Biak ere gai kutunak Justorentzat: lehenak bidaiak eta Euskal Herria lotzen zituelako, eta bigarrenak zientzien mundua literatura eta itzulpenarekin harremanetan jartzen zituelako.

Dena den, gerra aurrean bezalaxe, liburuetan agertutako Garateren izkribuek ez diete hurrik ere ematen aldizkarietan azalduakoei. Toki eta era askotako aldizkarietan publikatzen dira, gainera. Medikuntza eta zientziei buruzko lanak oparoak baldin badira, euskal gaiak jorratzen dituztenak are ugariagoak ditugu. Garateren jarioak agortezina dirudi. Zer ez du arakatu Ameriketako nahiz Europako argitalpenetan? Besteren artean, pertsonaia historikoen gaineko ohar eta zehaztapenak; euskal idazleei buruzko albiste berriak; hainbat pertsona ospetsuk euskaldunei buruz



Justo Garate irakaslea, eskuinetik bigarrena, Mendozako Unibertsitate-katedran zituen laguntzaileekin. Mendoza, 1958.



Justo Garate, Gumerindo Sánchez Guisande irakaslea, Itziar Arostegi eta Mario Burgos. Mendoza, 1958.



Justo Garate M<sup>ñ</sup> Elena Rodríguez Ozan irakaslearekin Mexikoko Unibertsitatean, 1967.



Justo Garatek Buenos Airesko EKIN argitaletxean 1943an kaleratu zuen liburuaren azala.

izandako iritziak; makina bat euskal libururi egindako iruzkin eta kritikak; eta, jakina, euskal hiztegirako ekarpenak, leku-izenak, berben jatorria, hizkuntzen arteko konparaketak eta antzekoak.

Gerra osteko lehenengo hamarkadan Buenos Airesko *Euzko Deya* aldizkarian, Donostiako Euskal

Herriaren Adiskideen Elkarteko Buletinean [*BSBAP*] eta Sara/Baionako *Eusko Jakintzan* argitaratu zuen gehienbat; hurrengo, berriz, Argentinan publikaturiko Eusko Ikaskuntzen Institutu Amerikarraren Buletinean [*BIAEV*]; Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian 1961etik aurrera; Iruñeko *Príncipe de Viana*, *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnografía de Navarra* aldizkarietan 1971az gero; eta horietaz gain *Gernika*, *Euzko Gogoia*, *Oñate*, *Munibe*, *Vida Vasca*, *Estudios Vizcaínos* eta beste zenbaitetan.

Adinarekin jakinduria ez ezik, polemikarako grina ere gehituz joan zitzaion. Adibidez, sonatuak izan ziren –hizkuntzalari eta filologoen mundutxoan behinik behin– Justo Garate eta Koldo Mitxelenaren arteko eztabaida eta ez-adostasunak, inoiz haserre eta purrustadetaraino ere iristen zirenak. Toponimia, onomastika eta etimologia kontuetan izaten zituzten liskarrik nabarmen eta ozenenak. Dena den, eta sarri askotan iritzi berekoak izan ez arren, Errenteriako maisuak aitortu zuen Mendozako bergarar erudituekiko zenbait alorretan geneukan zorra, Humboldt, Mogel eta Astarloaren garai eta xehetasunei dagokienean batik bat.

## AZKEN URTEAK

Majo kostata, baina halako batean heldu zitzairen Hego Euskal Herrira itzultzeko momentua. Bilbotik alde egin eta lau hamarkada beranduago, Franco hil eta urte pare batera [1977] etorri ziren Garate eta emaztea Bergara, Durango, Bilbo eta gaztetako beste hainbat lekutara. Gogoan dut jaioterriko udaletxean egin zitzairen harrera beroa eta UNEDeko aretoan, sasoi bateko Zalduntxoan Seminario zaharrean, Justok emandako hitzaldi luze eta oparoa. Trantsizio-garaiko egoera politiko berezi hartan, bere iritziak ezkutatu edo disimulatu beharrean, ausardiaz eta argi asko azaldu zigun zenbait gai eta arazoren gainean uste zuena, agian beste zerbait entzutea espero genuenoi.



Justo Garate Julian Gimon mediku eta adiskide bergararrarekin eta Benito del Valle jaunarekin azken honen etxean. Bilbao, 1980ko hamarkadan.

Ez zen Bergarakoa hitzaldi bakarra izan. Bilbo, Donostia eta Gasteizen ere berba egin zuen. Aldi berean ohorezko titulu, kargu eta dominak ere bata bestearen atzetik iritsi zitzaizkion: Ohorezko Irakasle izendatu zuen Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza Fakultateak; Ohorezko Kideen artean sartu zuten Bilboko Medikuntza Akademian; Bergarako UNED Ikastetxeak bere domina eman zion; Bizkaiko Idazleen Elkarteak, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak eta Bergarako Udalak ere omenaldiak egin zizkieten; eta geroxeago Euskal Akademiak Arrasateko Biltzarrean [1979] Ohorezko Euskaltzainen sailean ipini zuen.



Eusko Ikaskuntzaren «Manuel Lekuona» saria jasotzen Bergarako udaletxean. Jose Migel Barandiaran, Victoriano Gallastegi eta Justo Garate. Bergara, 1987.

Leioako Unibertsitateak 1982an Ohorezko Doktore izendatu zuenean, berriz etorri zen Mendozatik Euskal Herrira. Hirugarren eta azkenengo aldiz 1987an igaro zuen ozeanoa: oraingoan Eusko Ikaskuntzaren gonbitari erantzuteko; ez da ahaztu behar Justo Garate gerra aurrean kultur elkarte horretako zuzendaritzakide eta *RIEV* aldizkariko lankiderik saiatuenetakoa izan genuela. Eusko Ikaskuntzak *Manuel Lekuona* izeneko sari ospetsua eman zion, euskal kulturaren alde bizitza osoan zehar burututako lanarengatik. Eta egonaldi hura aprobetxatuz, Bergarako Udalak oroitarri bat jarri zuen Barrenkalan, Justoren jaiotetxearen ateburuan.



Bergarako udaletxeko bilkura-aretoan Eusko Ikaskuntzaren «Manuel Lekuona» saria jasotzen. Ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Zabala, X. X., Imanol Murua, Jose Migel Barandiaran, Victoriano Gallastegi, Justo Garate, Itziar Arostegi, Koldo Pereira, X. X.; Bergara, 1987.

21



Jaiotetxeko ateburuko oroitarria bistartzen. Aldamenean Victoriano Gallastegi, Bergarako udalaren ordezkaria. Bergara, 1987-06-20.

Bergarako Barrenkalean, Justo Garateren jaiotetxean, 1987ko ekainean jarritako oroitarria.



Justo Garate, ezkerretik bigarrena, Argentinako Goethe elkarteko kideekin. Buenos Aires, 1956.

Bestalde, Tandilen zein Mendozan euskal jai eta etxeak antolatzeko ekimenetan aurrengoetakoa zen beti. Eta, jakina, Argentina eta Ameriketako beste lurralde batzuetan euskal diasporan kulturgintzan ziharduen jende askorekin jarri zen harremanetan: Andres Irujo, Ixaka Lopez Mendizabal, Txomin Iakakortexarena, Gabino Garriga, Bingen Ametzaga, Iñaki Azpiazu, Jokin Zaitegi, Andima Ibiñagabeitia eta abarrekin<sup>3</sup>.

Argentinan ere makina bat omenaldi jaso zuen mediku nahiz kulturgizon gisa. Izan ere hainbat erakunde eta taldetako kide baitzen han ere: besteak beste, alemaniarren koloniak sustatutako Goethe elkarteko lehendakaria izan zen; orobat Sarmiento elkarteko presidentea eta Ameghino izenekoaren kidea; halaber, Mendozan kulturarekin zerikusia zuten zenbait bazkUNETAN partaide izan genuen, unibertsitatean nahiz unibertsitatetik at.



Iñaki Azpiazu apaiz eta idazlea Justo Garaterekin. Buenos Aires, 1960ko hamarkadan.

<sup>3</sup> Idazle eta kultur eragile hauetariko askok Argentinan iragan zuten euren atzerrialdia. Batzuk, ordea, Uruguay, Guatemala eta Venezuelan bizi izan ziren.



Hainbeste sari eta omenaldik, ordea, ez zuten Justoren idazteko gaitasuna moteldu eta kamustu. Ia azken unera arte eutsi zien hain erroturik zituen bere grinei: irakurri, ikertu, idatzi eta argitaratzeari. Azken urteotako ikerlan eta idazlanetatik pare bat soilik gogoratuko ditugu: Euskaltzaindiak eta Nevadako Unibertsitateak Renon

1992an eraturako Onomastika eta Toponimia Jardunaldietara bidali zuen txostena; eta Bergarako Udalak 1993an publikatu zion *Un crítico en las quimbambas. Autobiografía y escritos*, bere bizitzako xehetasun asko argitzeko ezinbestekoa zaiguna.

23



Tandilen ospatu zen lehenengo Euskal Jaia (1940). Gerrak sakabanatutako euskaldunak dira batzuk. Besteak beste, Ixaka Lopez Mendizabal idazlea, atzean ezkerretara; Ramon Aldasoro politiko errepublikanoa, bi kaputxinoen erdian; eta Justo Garate doktorea, eskuinean txapelarekin.

# 24

Laurogeita hamabi urterekin Argentinan moldatu zuen autobiografia horretako azken orrialdean honela diosku: «Bihotzak ene euskal lurreraino salto egiten didala sentitzen dut, seguraski jadanik sekula zapalduko ez dudan lurreraino; bertako mendi eta haranetan zehar nabil; herritarrekin hitz egiten ari naiz; nire herriko historia, hizkuntza eta ohituren hainbat alderdi zalantzan jartzen ditut; ikerketa berri baterako interesgarriak iruditzen zaizkidan xehetasunak jasotzen dihardut; bere txikitasun geografikoan herri handi bat amesten dut<sup>4</sup>».



Justo Garate bere bulegoan. Mendoza, 1983.

<sup>4</sup> Ik. GARATE, Justo, *Un crítico en las quimbambas. Autobiografía y escritos*, Donostia, 1993, 64 or.; gorago aipatu den Elias Amezagaren lanarekin batera, liburu hau da baliagarrien gertatu zaiguna gure lantxoan moldatzeko.

Bi urte beranduago hil zen Mendozan, 1994ko uztailaren 2an eta Bergara gogoan zuela, Euskal Herriak XX. mendean eman duen idazlerik ugarienetakoa, ikerlaririk entziklopedistenetakoa, polemistarik sutuenetakoa, kritikaririk kritikoenetakoa. Orduan itzali zen Justo Garate Arriola mediku eta kulturgizon bergarra, baina ez bere obra luze, oparo, eztabaidazale eta eztabaidatua; hor geratu zaigu betiko, liburuetan batuta eta aldizkarietan sakabanatuta, bere izenez eta zenbait ezizenez sinatuta: esate baterako, «Elorregi», «Eneko Mitxelena», «Eneko Zilueta» eta «Txeru Arriola». Egingo ahal da lehenbailehen bere lan osoen bilduma egoki eta eskuragarria.



*Un crítico en las quimbambas*. Justo Garatek 92 urterekin idatzi zuen autobiografia. Bergara, 1993.

*Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:*

- *Justo Garateren familia.*
- *Eusko Ikaskuntza.*
- *Begarako Udal Artxiboa.*
- *Arantzazu Oregi.*
- *Juan Martin Elexpuru.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2000ko abendua
Ale-kopurua:	2.000
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1626-3 (Obra osoa) 84-457-1628-X
L.G.:	BI-3032-00

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística